



www.begiko.com

Jatorrizko izenburua: MATILDA

© 1988, Roald Dahl Nominee, Ltd.

© 1988, Quentin Blake

© Itzulpena: 2018, Amets Santxex

© Euskarazko argitalpena:

2018, Santillana Infantil y Juvenil, S. L. eta Zubia Editoriala, S. L.

Legizamon poligonoa. Gipuzkoa kalea, 31, 1. esk.

48450 Etxebarri

Tel.: 94 426 90 72

ISBN: 978-84-16839-22-3

Lege-gordailua: M-16317-2017

Printed in Spain - Espainian inprimatua

Bigarren argitalpena: 2018ko urtarrila

Hamabostetik gora berrargitalpen Zubia argitaletxean

Sailaren zuzendaritza:

Joseba Santxo eta Maite Malagón

Edizioa:

Ainhua Basterretxea eta Yolanda Caja

Errealizazioa:

Miren Pellejero

Zuzenketa:

Ane Barrenengoa eta Amaia Lasheras

Arte-zuzendaritza:

José Crespo eta Rosa Marín

Proiektu grafikoa:

Marisol del Burgo, Rubén Chumillas, Julia Ortega eta Álvaro Recuenco

Debekaturik dago, legeak ezarritako salbuespenak salbu, lan hau inola erreproduzitzea, banatzea, jendaurrean jakinaraztea, zein eraldatzea, haren jabetza intelektuala dutenen baimenik gabe. Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo zuzenean CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

Matilda

Roald Dahl

Irudiak: Quentin Blake

begiko

Michaeli eta Lucyri

Liburuen irakurlea

9

Amak eta aitak xelebreak dira. Beren haurra imajina dezakezun euli mando higuigarriena izan arren, zoragarria dela uste izaten dute.

Guraso batzuk are xelebreagoak dira. Mirespenak hainbestearino itsutzen ditu, ezen beren buruari sinetsarazten baitiote beren haurrak jennio baten ezaugarriak dituela.

Tira, horrek ez du ezer txarrik. Mundua horrelakoa da. Gurasoak guri beren haur nardagarrien bikaintasunaz hizketan hasten zaizkigunean, ordea, oihuka hasten gara: «Ekarguzue ontzi bat! Botaka egingo dugu eta!».

Irakasleek asko sufritzen dute guraso harroen ergelkeria horiek entzun behar dituztelako, baina, oro har, ikasturte amaierako txostenak idazten di-




tuztenean, ongi asko mendekatzen dira. Irakaslea banintz, sekulakoak asmatuko nituzke seme-ala-bei gaixotzerainoko maitasuna dieten gurasoen haurrentzat: «Zuen semea, Maximilian —idatziko nuke—, desastre hutsa da. Espero dut familia-negozioren bat izatea, eskola amaitzean han sartzeko, ziur bainago, zalantza izpirik gabe, ez duela lanik aurkituko beste inon». Edo egun horretan inspiraturik sentituko banintz, zera idatziko nuke: «Naturaren bitxikeria bat da matxinsaltoek sabelaren alboetan dituztela entzumen-organoak. Zuen alaba Vanessak, azken hiruhilekoan zer ikasi duen ikusita, ez du entzumen-organorik».





Naturaren historian are sakonago murgil nin-
teke, eta esan: «Txitxarra sei urtez egoten da lur
azpian larba moduan, eta, asko jota, sei egun iza-
ki libre gisa eguzkiaren argitan, aire zabalean.
Zuen seme Wilfredek sei urte igaro ditu eskola
honetan larba moduan, eta oraindik ere krisali-
datik noiz aterako zain gaude». Neska bereziki
gogaikarri batek zera esatera zirika nintzakeen:
«Fionak izozmendi baten edertasun hotz bera
du, baina izozmendiak ez bezala, ez du ezertxo
ere azal azpian». Nik uste gozatu egingo nukeela
nire ikasgelako ume pesteen ikasturte amaierako
txostenak idazten. Baina, tira, aski da. Aurrera
egin behar dugu.

11



Noizean behin, aurkako jokabidea duten gurasoak aurkitzen ditugu, beren haurrenganako bate-re interesik ez dutenak, eta horiek, jakina, seme-alabei gaixotzerainoko maitasuna dietenak baino askoz okerragoak dira. Wormwood jauna eta andrea horietakoak ziren. Michael izeneko seme bat zuten, eta Matilda izeneko alaba bat, eta gurasoek zauri baten zarakartzat baino ez zuten hartzen Matilda. Zauri baten zarakarra jasan beharreko zerbait da, harik eta gainetik kentzeko eta hatz-kolpe azkar batekin urrun jaurtitzeko unea iristen den arte. Wormwood jauna eta andrea irrika bizian zeuden, alabatxoa gainetik kendu eta hatz-kolpe azkar batekin urrun —aukeran, alboko konderrira edo are urrunago— jaurtitzeko unearen zain.

Txarra da gurasoek haur arruntak zarakarrak eta juanikoteak izango balira bezala tratatzea, baina, nolabait, askoz okerragoa da delako haurra aparta bada, eta horrekin zera esan nahi dut: sentikorra eta argia. Matilda bi gauza horiek zen, baina, oroz gain, argia. Hain argia zen eta hain azkar ikasten zuen, ezen haren trebetasunak



agerikoa izan behar baitzukeen guraso tentel gehientzat ere. Baina Wormwood jauna eta andrea hain zozoak ziren eta hain murgildurik zeuden beren bizitza txiki kaskarretan, ezen ez baitzuten ezer berezirik sumatu alabarengan. Egia esan, alaba etxera hanka apurtuta joango balitz ere, ez dute uste ezer sumatuko luketenik.

Matildaren neba Michael guztiz mutil normala zen, baina arrebaren aurrean, lehen esan dudan bezala, begiak arranpalo geldituko zinateke. Urte eta erdi zuenean, akatsik gabe hitz egiten zuen, eta heldu gehienek bezainbat hitz zekizkien. Gurasoek, alaba zoriondu beharrean, hitzontzi esaten zioten, eta modu txarrean esaten zioten neskatoak ikusteko direla eta ez entzuteko.

13



Hiru urte bete zituenerako, Matildak bazekin irakurtzen, bere kabuz ikasi baitzuen, etxean zeuden egunkari eta aldizkariekin. Lau urte zitueneko, azkar eta ongi irakur zezakeen, eta bere baitatik sortu zitzaion liburuekiko irrika. Etxe ilustratu horretako liburu bakarra *Sukaldaritza erraza* izeneko liburu bat zen, bere amarena zena, eta Matildak, goitik behera irakurri eta errezeta guztiak buruz ikasi zituenean, zerbait interesgarriagoa nahi zuela erabaki zuen.



—Aitatxo —esan zuen Matildak—, erosiko al didazu liburu bat?

—Liburu bat? —esan zuen aitak—. Zertarako nahi duzu liburu txatxu bat?

—Irakurtzeko, aitatxo.

—Zer du txarra telebistak? Jainkoarren! Telebista ederra dugu, hamabi hazbeteko pantaila duena, eta orain liburu bat eskatzen didazu! Lotsagabe hutsa bilakatzen ari zara, neska!

Ia asteko arratsalde guztietan, Matilda bakarrik egoten zen etxean. Neba bera baino bost urte zaharragoa zen, eta eskolara joaten zen. Aita lane-
ra joaten zen, eta ama bingoan jokatzera, handik zortzi kilometrora zegoen herri batera. Wormwood andrea bingozale amorratua zen, eta astean bost arratsaldetan jokatzeko zuen. Aitak libururik erosiko ez ziola esan zion eguneko arratsaldean, Matildak herriko liburutegira joatea erabaki zuen. Iritsi zenean, bere burua aurkeztu zion liburuzainari, Phelps andreari. Galdetu zion ea pixka batean eseri eta liburu bat irakur zezakeen. Phelps andreak, zertxobait harriturik hain neskato txikia gurasorik gabe etorri zelako, ongietorria eman zion.

—Mesedez, non daude haurrentzako liburuak?

—Hantxe daude, beheko apal haietan —esan zion Phelps andreak—. Nahi al duzu liburu polit bat aurkitzen laguntzea, marrazki asko dituen?

—Ez, eskerrik asko —esan zuen Matildak—. Ziurnago bakarrik moldatzeko gauza izango naizela.

Handik aurrera, arratsaldero, ama bingora joan orduko, Matilda liburutegira joaten zen ttakattaka. Hamar minutuko ibilbidea zuen, eta horrek aukera ematen zion bi ordu lasai-lasai bere kasa eserita egoteko, bazter eroso batean, liburuak bata bestearen atzetik irensten. Han zeuden haurrentzako liburu guztiak irakurri zituenean, beste zerbaiten bila hasi zen, hara eta hona.

Phelps andrea, zeina liluraturik begira aritu baitzitzaion azken bi asteetan, bere idazmahaitik altxatu, eta hurbildu egin zitzaion.

—Laguntzerik nahi, Matilda? —galdetu zion.

—Ez dakit orain zer irakurri —esan zuen Matildak—. Haurrentzako liburu guztiak irakurri ditut.

—Marrazkiei begiratu diezula esan nahi duzu?

—Bai, baina irakurri ere egin ditut.

Bere garaiera handitik, Phelps andreak behe-rantz begiratu zuen Matilderengana, eta honek begirada itzuli zion.

—Batzuk oso kaskarrak iruditu zaizkit —esan zuen Matildak—, baina beste batzuk oso politak ziren. *Lorategi sekretua* gustatu zait gehiena. Misterioz beteta dago. Ate itxiaren atzeko gelaren misterioa eta horma handiaren atzeko lorategiaren misterioa.



Phelps andrea txundituta zegoen.

—Matilda, zenbat urte dituzu zehazki?

—Lau urte eta hiru hilabete.

Phelps andrea inoiz baino txundituago zegoen, baina bere txundidura agerian ez jartzeko zuhurtasuna izan zuen.

18 —Zer motatako liburua irakurri nahiko zenuke orain? —galdetu zuen.

—Benetan ona den liburu bat nahiko nuke, helduek irakurtzen dituzten horietakoa. Ezaguna dena. Ez dakit izenbururik.

Phelps andreak apaletara begiratu zuen, bere denbora hartuz. Ez zekien oso ongi zer liburu aukeratu. Nola, galdetzen zion bere buruari, aukeratu helduentzako liburu ezagun bat lau urteko neskato batentzat? Lehenbizi, nerabeentzako eleberri erromantiko bat aukeratzea pentsatu zuen, hamabost urteko eskola-neskentzat idatzitako horietako bat, baina arrazoiren batengatik, senak apal horretatik urruntzera bultzatu zuen.

—Tori hau, ea zer iruditzen zaizun —esan zuen azkenean—. Oso ezaguna eta oso ona da. Luzeegia iruditzen bazaizu, esadazu eta zerbait laburragoa eta pixka bat errazagoa bilatuko dut.

—*Itxaropen handiak* —irakurri zuen Matildak—. Charles Dickensena. Gustura saiatuko nintzateke.

—Zoratuta nago —pentsatu zuen Phelps andreak bere baitan, baina Matildari esan zion—: Jakina saia zaitezkeela.

Hurrengo arratsaldeetan, Phelps andreak ia ezin zion begirik kendu aretoaren atzealdeko besaulki handian eserita liburua magalean zuela orduak eta orduak igarotzen zituen neskatoari. Liburua magalean jarri behar zuen, astunegia baitzen eskuekin eusteko, eta, horregatik, aurrerantz makurturik eseri behar zuen, irakurri ahal izateko. Bitxia zen ile iluneko pertsona txiki hura han ikustea, hankak

19



lurra ukitzetik urrun, guztiz murgilduta Pipek eta Havisham andreak azken horren amaraunez betetako etxean izandako abenturetan, Dickens istorio-kontatzaile handiak bere hitzekin ehundutako arao magikoaren lilurapean. Irakurlearen mugimendu bakarra eskuarena zen, orria pasatzen zuen bakoitzean, eta Phelps andrea beti sentitzen zen triste, harengana hurbildu eta «Matilda, bostak hamar gutxi dira» esateko garaia iristen zenean.

Matilda liburutegira joaten hasi zen lehen astean, Phelps andreak esan zion:

—Amak ekartzen al zaitu hona egunero eta gero hark eramaten al zaitu etxera?

—Ama Aylesburyra joaten da arratsaldero, binoan jokatzera —esan zuen Matildak—. Ez daki hona etortzen naizela.

—Baina hori ez dago ongi —esan zuen Phelps andreak—. Nik uste galdetu egin beharko zeniokeela.

—Nahiago dut ez galdetu —esan zuen Matildak—. Ez nau animatzen liburuak irakurtzera. Ezta aitak ere.

—Baina zer nahi dute zuk egitea arratsaldero, etxe huts batean?

—Egonean egotea eta telebista ikustea.

—Aaa!

—Berdin zaio zer egiten dudan —esan zuen Matildak, pixka bat goibelduta.

Phelps andrea kezkatuta zegoen neskatoaren segurtasunagatik, herriko Kale Nagusi jendetsuan barrena ibili eta errepidea zeharkatu behar baitzuen, baina tartean ez sartzea erabaki zuen.

21

Handik astebetera, Matildak *Itxaropen Handiak* amaitu zuen; edizio hark laurehun eta hamaika orrialde zituen.

—Izugarri gustatu zait —esan zion Matildak Phelps andreari—. Idatzi al zuen Dickensek beste libururik?

—Beste asko —esan zuen Phelps andreak, harriturik—. Nahi al duzu nik beste bat aukeratzea?

Hurrengo sei hilabeteetan, Phelps andrearen begirada erne eta errukitsuaren pean, Matildak liburu hauek irakurri zituen:

Nicholas Nickleby, Charles Dickensena.

Oliver Twist, Charles Dickensena.

Jane Eyre, Charlotte Brontërena.

Harrotasuna eta aurrejuzkuak, Jane Austenena.

Tess of the d'Urbervilles, Thomas Hardyrena.

Bidaia Lurrera, Mary Webbena.

Kim, Rudyard Kiplingena.

Gizon ikusezina, H. G. Wellsena.

Agurea eta itsasoa, Ernest Hemingwayrena.

Hotsa eta ardaila, William Faulknerrena.

Suminaren mahatsak, John Steinbeckena.

Kide onak, J. B. Priestleyrena.

Brighton Rock, Graham Greenerena.

Abereen etxaldea, George Orwellena.

Zerrenda izugarria zen, eta, ordurako, Phelps andrea miresmenez eta zirraraz beteta zegoen, baina, ziur asko, ongi egin zuen horren guztiaren aurrean guztiz ez asaldatzea. Haur txiki haren lorpenen lekuko zen edonork tentazioa izango zuen izugarrizko eskandalua sortzeko eta herri osoan



eta herritik harago kontatzeko, baina Phelps andreak ez. Bere gauzetan baino ez zen sartzen, eta aspaldi konturatu zen oso gutxietan merezi zuela besteen haurren bizitzan sartzea.

—Hemingway jaunak gauza asko esaten ditu ulertzen ez ditudanak —esan zion Matildak—. Batez ere gizonei eta emakumeei buruz. Baina, hala ere, gustatu zait. Gauzak kontatzeko duen moduarekin, iruditzen zait hortxe nagoela, gertatzen den guztiari begira.

—Idazle on batek hori sentiarazten dizu beti —esan zuen Phelps andreak—. Eta ez kezkatu ulertzen ez dituzun gauzengatik. Irakurri lasai-lasai, eta utzi hitzei zugana etortzen, musikaren antzera.

—Ados.

—Ba al zenekien —esan zuen Phelps andreak— liburutegi publikoek aukera ematen dizutela liburuak maileguan hartu eta etxera eramateko?

—Ez nekien —esan zuen Matildak—. Neuk ere hori egin dezaket?

—Jakina —esan zuen Phelps andreak—. Nahi duzun liburua aukeratutakoan, ekardazu, apunta dezadan, eta zurea izango da bi astez. Liburu bat baino gehiago har dezakezu, nahi izanez gero.

Handik aurrera, Matilda astean behin bakarrik joaten zen liburutegira, liburu berriak hartzera eta irakurritakoak itzultzera. Haren logela txikia irakurgela bihurtu zen, eta hantxe eseritzen zen eta irakurtzen zuen ia arratsaldero, maiz alboan katilu bat txokolate bero zuela. Txikiegia zen sukaldeko ontzietara-eta iristeko, baina kутxatxo bat zuen lorategiko etxolan, eta hura etxera sartu eta haren gainean jartzen zen behar zuen guztia eskuratzeko. Gehienetan, txokolate beroa egiten zuen, esnea lapiko batean sutan berotuz, txokolatea bota aurretik. Noizean behin, irabiatu bat egiten zuen: Bovril edo Ovaltine. Gustatu egiten zitzaion gelara edari bero bat eramatea eta alboan izatea, arratsaldeetan etxe huts hartako bere logela isilean eserita irakurtzen zuen bitartean. Liburuek mundu berrietara eramaten zuten, eta bizitza kilikagarriak bizi zituzten pertsona izugarriak erakusten zizkioten. Antzinako belantzietan ibili zen Joseph Conradekin. Afrikara joan zen Ernest Hemingwayrekin, eta Indiara Rudyard Kiplingekin. Mundu osoan barrena bidaiatu zuen, bere logela txikian eserita, Ingalaterrako herrixka batean.

